

Bigarren bikoteen eragina banandutako familietan

Gero eta pertsona gehiagok osatzen dute bikote berri bat dibortziatu edo banandu ondoren. Hala ere, umeak familia-egitura berrira moldatzerakoan zailtasunak agertzeak ez du esan nahi umeen presentzia faktore negatiboa edo kaltegarria denik nahitaez. Seme-alabentzat ona izaten da maiz, aita edo ama bikote berria aurkitzea, are gehiago denborak aurrera egin ahala.

Kontuan hartu behar da, hasieran, umeek figura berria errefusatu dezaketela, figura horren atribuzioak eta eman nahi zaion autoritatea zalantzan jarriz. Gainera, batzutan, amaren aurka ere jo dezakete jeloskortasunaren ondorioz. Umeek, ama edo aitaren bikote berria, aurkari edo ustezko ordezkari gisa hartzen dute oharkabea. Halaber, ezin dugu ahaztu, aldaketa horrek segurtasun falta sor dezakeela haurrengan, haietzat argi geratzen baita guraso biologikoak ez direla gehiago elkarrekin egongo.

Umeen hezkuntzari buruzko erabakirik garrantzitsuenak aitaren eta amaren adostasunaz hartu behar dira bananduta egon arren, baina aldi berean, familia berriaren arauak onartu behar dituztela ulertarazi behar zaie umei. Horrezaz gain, umeek amaren edo aitaren bikote berriarekin izan nahi duten harremana hautatzeko aukera izan behar dute. Hortaz, ez zaie inposatu behar “aita” edo “ama” deitzera, baina era berean, ez zaie kritikatu behar izen propioa erabiltzen badute.

Ondorengo jarraibideak kontuan izan behar dira:

- Oso argi utzi behar zaie pertsona berria, aitaren edo amaren lagun berria izan arren betiko gurasoak izaten jarraitzen dutela eta sekula ez dutela galduko haien afektua eta arreta.
- Ez egin konparaziorik, bikote berria atsegina suerta dadin umeen begietara. Adibidez, honelakoak esatea saihestu: Aitak baino hobe prestatzen du janaria, ezta? Ikusi duzu nolako auto ederra duen?
- Umearekin bizi ez den gurasoaren presentzia errespetatu beharra dago eta leku jakin bat izan behar du, elkarrizketetan nahiz argazki edo bestelako oroigarrien bidez.
- Sarritan gertatzen da umeak aurka egitea lehen uneetan “Zu ez zara nire aita/ama” esanez. Esaldi mingarri horien aurrean, lasai erantzutea komeni da, adibidez, honela: “Egia da, ez naiz zure aita/ama, baina berak zuk gauzak honela egin ditzazun ditu gustuko eta nik ere uste dut honela hobe dela”. Horrela, lekuak errespetatzen direla eta inork ez duela inoren aurka egiten ikusiko du.
- Ezin dugu umea gehiegi babestu, edo bere egoera aldatu delako une oro konpentsatzen ibili. Une horietan, gurasoen babesa eta ulermena behar du, ez permisibitatea, errukia edo erruduntasuna.

Laburpena

Banantze bat eta gero berriz hastea jada nahiko zaila egiten bada, gauzak are zailago bihur daitezke bikotekideetako batek edota biek aurreko harremanean seme-alabak izan badituzte. Edonola ere, umeen errealitatea kontuan hartu behar da beti, egoera berri honetako pertsonarik ahulenak direlako eta, helduentzat bikote berria aurkitzeak bikote-bizitza berreraikitzeke aukera dakarren arren, umeentzat aldaketa garrantzitsua delako, askotan onartzeko oso zaila dena.

Ainhoa Manzano Fernández Doktorea
Juan Luís Martín Ayala Doktorea
ETXADI
Familia-Psikologia Unibertsitate-Zentroa
Centro Universitario de Psicología de la Familia